

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Markina-Xemeingo Udala

Ayuntamiento de Markina-Xemein

2014





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.2 Urteko Kontuei buruzko Iritzia.....	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	9
III.1 Aurrekontua, kontabilitatea eta diru-sarrerak.....	9
III.2 Langileria.....	9
III.3 Kontratazioa.....	10
III.4 Diru-laguntzak.....	11
III.5 Berankortasuna eta bestelako alderdiak.....	12
IV. FINANTZA ANALISIA.....	13
V. URTEKO KONTUAK.....	16
ALEGAZIOAK.....	19
ABREVIATURAS.....	27
I. INTRODUCCIÓN.....	29
II. OPINIÓN.....	30
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	30
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	30
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	31
III.1 Presupuesto, contabilidad e ingresos.....	31
III.2 Personal.....	31
III.3 Contratación.....	32
III.4 Subvenciones.....	33
III.5 Morosidad y otros aspectos.....	34
IV. ANÁLISIS FINANCIERO.....	35



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. CUENTAS ANUALES	38
ANEXOS	41
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	41
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias	41
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	43
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	44
A.5 Gastos de personal	44
A.6 Compras de bienes corrientes y servicios.....	45
A.7 Inmovilizado e inversiones.....	46
A.8 Transferencias y subvenciones concedidas	47
A.9 Pasivos financieros y Tesorería.....	48
A.10 Deudores y otros saldos	48
A.11 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial.....	49
A.12 Análisis de contratación	50
A.13 Indicadores financieros y presupuestarios.....	51
ALEGACIONES	53

Vitoria-Gasteiz, 2016ko otsailaren 25a
Vitoria-Gasteiz, 25 de febrero de 2016



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

10/2003 FA	10/2003 Foru Araua, Bizkaiko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.
20/2012 ELD	20/2012 Errege Lege Dekretua, Aurrekontuaren Egonkortasuna eta Lehiakortasunaren Sustapena Bermatzeko Neurriei buruzkoa
5/2013 FA	5/2013 Foru Araua, Bizkaiko Toki Erakundeen Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoa.
AJA	2568/1986 Errege Dekretua, Toki Entitateen Antolamendu, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua.
APKLEO	1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
DLO	Ley 38/2003, General de Subvenciones.
EPOE	7/2007 Legea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
HLEE	1093/1997 Errege Dekretua, Hipoteka Legea Egikaritzeko Erregelamenduarekiko Arau Osagarriak, Hiri Izaerako Ekintzak Jabetza Erregistroan Inskribatzeari buruzkoa.
LRBL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arazten dituen.
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina.
Udalkutxa	Udal Finantzaketarako Foru Funtza





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Markina-Xemeingo Udalaren 2014ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Egoeraren balantzea, Galera-irabazien kontua eta Memoria; baita Udalaren Aurrekontuen likidazioa ere.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, Udalaren kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Markina-Xemeingo Udalak 4.982 biztanle zituen 2014ko urtarrilaren 1ean. Zenbait udal zerbitzu Lea Artibaiko udalen Mankomunitatearen (zabor bilketa eta gizarte zerbitzuak) eta Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoaren bitartez (hornidura eta estolderien lehen mailako sareak) ematen ditu. Aldi berean, Lea Artibaiko Garapen Agentzia, SAko (%16,7) eta Lea Artibaiko Landa Garapenerako Elkarteko partaide da. Horrezaz gain, San Roque Egotetxearen Patronatuko kide da, laguntza behar duten zaharrentzako egoitza eta eguneko zentro baten jabe dena.

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA (IKUS A.12 ERANSKINA)

1. Eskola eta udal aretoak garbitzeko zerbitzua 177.905 euroan esleitu zen (1 zenbakiko espediente) 2012ko urtean publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez eta enpresa bakarrari luzatu zitzaion aurkezteko gonbita, publikotasun eta lehia printzipioak urratuz; ordea, SPKLTBaren 138. artikulua arabera prozedura irekia baliatu behar zatekeen. Gainera, 2014ko abenduan 2015eko urterako luzapena onartu zen, kontratuan finkatutako indarraldiaren gehienezko epea urratuz (A1 akatsa).
2. Udalak egindako beste esleipen batzuk aztertzean azaleratu da prozedura negoziatua baliatu dela argindarraren hornidura eta diru-bilketan laguntza emateko zerbitzuan eta kontratazio zuzena kultur-etxe baten kudeaketan eta hirigintzako aholkularitza zerbitzuan. Lehenengo bi kontratuetan publikotasun printzipioa urratu da eta beste bietan lehiaren printzipioa ere bai; kontratu hauek 2014an 328.022 euroren gastua egin dute.

Epaitegi honen ustetan, Markina-Xemeingo Udalak, 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako lege hausteak alde batera, zuzentasunez bete du 2014ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Udalak ez du Egoeraren Balantzearen Ibilgetua osatzen duten elementuen xehetasunik eta honenbestez, ezin zehaztu izan dugu 2014ko abenduaren 31ko udalaren ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen den. Gainera, Udalak ez du inongo gasturik erregistratzen ibilgetuaren amortizazio kontzeptuan.

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoan azaleratutako salbuespenaren eragina salbuetsita, Markina-Xemeingo Udalaren Kontu Orokorrek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2014ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa eta 2014ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena eta ekitaldian bere eragiketen emaitzena.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantzaren jardura arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 AURREKONTUA, KONTABILITATEA ETA DIRU-SARRERAK

- Udalak atzerapenez aitortzen ditu estolderia eta zabor bilketako tasen diru-sarrerak, izan ere, Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoak ordaintzen dituen erregistratzen ditu, kobratzeko emandako errolda fiskalen kontzeptuko sarrerak aitortu beharrean. Modu honetara, ekitaldiko diru-sarrera modura 2013ko uztailetik 2014ko ekainera bitarteko likidazioak erregistratu ditu (A.3 eranskina).
- Kontu Orokorrak ez du 2006an Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoarekin datozen ekitaldietan obra bat finantzatzeko hartutako konpromisoari buruzko informaziorik ematen, hasiera batean aurreikusitako 91.983 euroren kostua duena (A.3), ez eta Barroeta Zubiko obrei buruzkorik ere, 2014ko abenduaren 31n egikaritzeko daudenak, 691.098 euroren zenbatekoan, ekitaldi itxieran fase erabiliko saldoa balio gabetu izanaren ondorioz.
- Aurrekontu Egiterapenerako Udal Arauak kasu jakin batzuetan faseak metatzea (ADO) aurreikusten zuen (20. art.), baina 2014ko ekitaldian orokortu egin zen 2 eta 6 kapituluetakos eraketetan. Gastua esleitzerakoan egiaztatu egin behar da kreditu egokia badagoela eta kontrol urrats hori kopuru txikiko eraketetan soilik saihestu daiteke.
- “Beste zenbait gastu” kontzeptupean guztira 304.600 euro aurrekontuetaratu ziren (gastuen 2. kapituluaren aurrekontuaren % 18). Gastu kontzeptu honek erabilera marjinala behar luke izan, bestelako inongo kontutan sailka ezin daitezkeen eraketetarako soilik erabiltzea aurreikusten baita.
- Kiroldesia erabiltzeagatik tasa zerbitzua kudeatzen duen enpresak biltzen du eta kontratuan emandako zerbitzuen ordainsari modura jaso dago. 2014an tasak 204.947 euroren diru-sarrerak sortu zituen (A.3 eranskina) eta Udalak diru-sarrera eta gastu modura erregistratu behar lituzke, 10/2003 FAan aurreikusitakoaren arabera.

III.2 LANGILERIA

- Udalak ez zituen BAOean argitaratu 2011ko udalbatzen erabakiak, alkatearen eta zinegotzi baten dedikazioa eta ordainsariak finkatzen dituztenak, zeinak 2014an guztira 46.014 euro jaso zituzten (TAOLaren 75.5 art.). Berebat, ez zion publikotasunik eman 2012ko abenduan udaleko langileen lan baldintzak arautzen dituen erabakia onartu izanari (EPOEren 38.6 art.).
- Fiskalizazio-gai izan den ekitaldian indarrean zegoen LZak, 2013an urte horretako aurrekontuarekin batera onartu zenak, ez zituen lanpostu bakoitzaren berariazko osagarriak zehazten, honela, bada, 2014ko aurrekontuko plantillan adierazitako zenbatekoak ordaindu ziren. Berebat, 3 lanpostuamortu dira eta beste baten ordainsariak



gehitu dira, hori justifikatuko duen txostenik gabe. Bestetara, aurrekontuko plantilla ez zectorren bat LZarekin, 4 lanposturen destino osagarriko maila altuagoak jasotzen baizituen.

- 2014ko abenduaren 31n indarrean zeuden 2011 eta 2012ko bitarteko funtzionarioen bi izendapen, egitekoen metatzea moldepean. Horiek lanean jarraitzeak adierazten du betetzen dituzten egitekoek iraunkortasuna dutela eta honenbestez, zuzendu egin behar da egoera hori. Gainera, komeniko litzateke langileen eranskinean bi lanpostu hauetarako eskakizunak LZko lanpoen eskakizunetatik bereiztea.
- 3 talde politikoak ez ziren talde modura formalki eratu, AJAren 24 eta 26 artikuluek agintzen duten moduan; izate hori ordainsariak ordaindu aurretik egiaztatu beharrekoa da.

III.3 KONTRATAZIOA

2014an indarrean zeuden 3 kontratu aztertu ondoren, honako alderdi hauek azalerratu zaizkigu (ikus A.12 eranskina):

- Eskola eta udal aretoak garbitzeko zerbitzua (1. espediente):
 - Kontratatu diren prestazioak zehazteko plegua eranskin batean instalakuntzak eta dedikazio orduak zerrendatzera mugatzen da.
 - Kontratuaren pleguak ez du inongo bermerik eskatzen eta prezioak berrikustea aurreikusten badu, ez du adierazten zein formula baliatu behar den.
- Kiroldegiaren kudeaketa (2. espediente):
 - Ez dago jasoa APKLEOaren 183. artikulua aipagai duen azterketa ekonomiko-administratiboa. Azterketa hau beharrezkoa da kontratuaren baldintza ekonomikoak modu egokian definitzeko (tarifak, erabiltzaileen diru-sarrerak, udal canona, esleipendunaren konturako kostuak, e.a.), lehiatzaileek eskaintzak aurkezteko eta kontratuaren balioetsitako balioa zehazteko.
 - Pleguek hobekuntzak esleipen irizpide modura jasotzen dituzte, baina ez daude zehaztuak, SPKLTBaren 147.2 artikulua aurreikusten duen moduan.
 - Kontratazio mahaiak beste 4 esleipen irizpideri emandako puntuaketak ez ziren arrazoitu (SPKLTBaren 139. art.).
 - Espedienteari premia izapidetzeko izaera aitortu zitzaion eta pleguak aurkezteko epeak murriztu ziren; ez zen egin, baina, nahitaezko arrazoitzea (SPKLTBaren 112. art.).
 - Pleguak kontratuaren luzapena aurreikusten du (5 urtez), zehazten ez diren prestazio berriak eskatuz (obrak); hori kontratu aldaketa bat da eta honenbestez, kontratua lehiatzean zehaztu behar da (SPKLTBaren 106. art.).
- Berroetako zubia eta inguruaren urbanizazioa (3. espediente):
 - Pleguak hobekuntza modura definitzen zituen proiektuaren inguruneko obra osagarriak eta halakotzat hartzen zituen 80.000 euroren obrak, Udalak zehaztu

beharrekoak; ordea, hobekuntza horiek kontratuaren xedeari dagozkionak izan behar dute (SPKLTBaren 147. art.). Zenbateko hori obra nagusiarekin inongo loturarik ez zuen beste obra batean erabili zen, kontratista berari 110.234 euroan esleitu zitzaiona, nahitaezko prozedura negoziatua bideratu gabe. Gainera, komeniko litzateke hobekuntza modura onartutako obra honen eta beste batzuen (atletismo pista eta bidegorria) gaineko jarraipena obra nagusiaren hileroko egiaztagirietan barne hartzea.

Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu kontratuen esleipendun diren enpresen arteko harremana argitzeko beharrezko diren jarraibideak ebatzi, 20/2012 LEDen 1. xedapen gehigarriak agintzen duen moduan.

Erosketa txiki modura izapidetutako erosketak aztertzean, zerbitzu bat 44.300 euroan zuzenean esleitu dela ikusi da, prozedura negoziatu bidez izapidetu beharrean.

III.4 DIRU-LAGUNTZAK

- Nahiz Udalak 2004an ordenantza bat onartu zuen udalerriko kultura eta kirol erakundeei laguntzak banatzeko, ez da 2014an baliatu eta laguntzak izenez esleitu dira ekitaldiko aurrekontuan (68.650 euro 24 elkarteri), elkarlehia erregimenaren ohiko prozedura baliatu beharrean (DLOren 22. art.). Kasu guztietan emakida ebazpenek ordaindu beharreko diru-kopurua baizik ez zuten adierazten (aurrekontuarekin bat zetorrena), diruaren norakoa eta baldintzak zehaztu gabe. Berebat, ez zen egiaztatu onuradunak obligazio fiskal eta zergazkoetan egunean zeudenik.

Justifikazioari dagokionez, bost espediente esanguratsuenak aztertu ditugu, 33.650 euroren diru-laguntzak batzen dituztenak, eta egiaztatu dugu bi kasutan sarrera eta gastuen egoerak aurkeztu zirela, baina horien xehetasunezko zerrendarik jaso gabe. Agiri justifikagarriari dagokienez, 6.000 euroren diru-laguntza batean jaso izanaren agiriak aurkeztu ziren eta bi kasutan ez ziren gastu guztiak justifikatu, nahiz emandako laguntzen zenbatekoa gainditzen zen. Honi dagokionez, udal ordenantzak agiri bidezko justifikazioa diru-laguntzaren zenbatekora arte mugatzen du, diruz lagundutako jardueraren gastuak osorik justifikatzeko eskatu beharrean (DLOaren 30. art.).

- Diru-laguntzen Lege Orokorrak agintzen du jarduerak gauzatu direla justifikatu ostean egingo dela ordainketa (DLOren 34.3 art.), nahiz aurrerakinak ematen uzten duen. Aurreko paragrafoko diru-laguntzen emakida ebazpenak diru-laguntzaren alde aurreko ordainketa aurreikusten zuen. Kontularitzako erregistroek ez dituzte aurrerakinak eta ohiko ordainketak bereizten eta komenigarria da, kontrol hobea izateko, azken ordainketa bat aurreikustea, aurkeztutako justifikazioa aztertu ostean.
- Udalak 2014ko otsailean hitzarmena izenpetu zuen Euskal Herriko Itzulia antolatzen duen erakundearekin. Hitzarmen horrek guztira 108.900 euroren ordainketa aurreikusten zuen, Udalak ordainetan publizitaterako guneak eskuratzekotan. Udalak beste udal eta enpresa batzuetatik ekarpenak jaso zituen eta guztira egin beharreko ekarpen garbia 12.750 eurora murriztu zuten; 2014ko martxoan kopuru horretako gastua onartu zuen. Hitzarmena izenpetu aurretik konpromiso guztiek eragingo zuten diru-



izendapena aintzat hartu behar zatekeen, beste erakunde batzuen ekarpen konpromiso irmoek eragingo zituzten diru-sarrerak ere aurreikusiaz. Horrezaz gain, erakunde antolatzaileak obligazio fiskal eta zergazkoak betetzen zituela egiaztatu behar zatekeen.

III.5 BERANKORTASUNA ETA BESTELAKO ALDERDIAK

- Udalak ez zituen ordainketa epeei buruzko nahitaezkoak diren hiruhileko txostenak egin (5/2013 FAren 4.5. artikulua).
- 2014an zehar ez zitzaion Udalbatzari eman alkateak jaulkitako ebazpenen berri eta ez ziren onartutako dekretu guztiak Ebazpenen Liburukian jaso (AJAren 42 eta 200 art.).
- Udalak 2010ean Jabetza Erregistroan Iderraga-Ituarte sektoreko hainbat lursail birsailkatzeko proiektua inskribatu zuen, 1,8 milioi euroren hirigintzako zamak zituenena (obrak eta kalte-ordainak, hurrenez hurren, 1,4 milioi euroan eta 400.656 euroan balioetsiak): 2014ko abenduaren 31n 399.945 euroren urbanizazio lanak egikaritu ditu eta ez du aurreikusten beste kalte-ordainik ordaindu beharko duenik; 450.398 euroren diru-sarrerak kitatu ditu, izan ere, lursailtan aurreikusitako eraikinen obra bakoitzari hasiera eman arte atzeratu du kobrantza. Erregistroko izen-emateek likidatzeko dauden kuotei gaineratzen dizkieten egiazko bermeak iraungitzea eragin dezakete likidazioan izandako atzerapenek (HLEEren 20. art.); horiek 350.204 euro egingo lituzkete 2014ko abenduaren 31n, egindako obrak eta kalte-ordainen balioespena aintzat hartuta. Gainera, hirigintzako kuotak kitatu zitzaizkien sustatzaileekin izenpetutako hirigintzako 3 hitzarmenak BAOan argitaratu behar ziratekeen (Lurzoru eta Hirigintzari buruko 2/2006 Legearen Xedapen Gehigarri 7.a).
- San Roque Egotetxeak 1997an bertako estatutuak aldatu zituen fundazioen araudi autonomikora egokitzeko. 2005ean ondareari beste eraikin bat gehitu zitzaion, 2,2 milioi euroren kostu balioetsia zuena eta nagusiki Udalak finantzatu zuena. Horrekin batera, BFA Fundazioak eskaintzen zituen egoitza zerbitzuak Udalari ematen hasten da, zeinak dagokion hitzarmena onartzen duen, baina aurrekontuz kanpo erregistratzen du BFArekin diru-sarrera (682.904 eurorena 2013an) eta Fundazioari ordainketak egiten dizkio, inongo esleipen edo mandaturik formalizatu gabe. Fundazioaren patronatuan udalaren ordezkari gabe. Komenigarria litzateke egoitzarekin eta/edo BFArekin harremanak arautzea; horretarako, aldi behin kudeaketari buruzko kontrolak egin beharko lirateke, batik bat erosketa eta langileriari dagokionez eta horren gaineko informazioa Udalaren aurrekontuetan eta urteko kontuetan txertatu eta Aldundiarekiko eta Egoitzarekiko harremanak aurrekontuan erregistratu.



IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

FINANTZA ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2012(*)	2013(*)	2014	2012	2013	2014
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	1.738	1.678	1.692	350	337	340
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	3.526	2.859	3.071	710	574	616
Ondare sarrerak (5. kap.).....	37	19	14	7	4	3
A. Diru-sarrera arruntak	5.301	4.556	4.777	1.067	915	959
Langile gastuak (1 kap.).....	1.313	1.386	1.359	264	278	273
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	1.635	1.600	1.595	329	321	320
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	1.510	793	747	304	159	150
B. Funtzionamendu gastuak	4.458	3.779	3.701	897	758	743
Aurrezki gordina (A-B)	843	777	1.076	170	157	216
- Finantza gastuak (3. kap.).....	(94)	(81)	(66)	(19)	(16)	(13)
Emaitza arrunta	749	696	1.010	151	141	203
-Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	(627)	(352)	(303)	(126)	(71)	(61)
Aurrezki garbia	122	344	707	25	70	142
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	12	32	89	2	6	18
Jasotako kapital transferentzia eta diru-laguntzak (7. kap.).....	56	69	75	11	14	15
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	(266)	(328)	(611)	(54)	(66)	(123)
- Kapital transf. eta diru-lag. (7. kap.).....	-	(1)	(3)	-	-	(1)
Kapitaleko eragiketen emaitza.....	(198)	(228)	(450)	(41)	(46)	(91)
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.).....	551	468	560	110	95	112
Diruzaintza Geldikin Likidoa	1.573	1.675	1.923	317	336	386
Zorpetzea	2.106	1.753	1.450	424	352	291

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: % 10 egin dute behera hirurtekoan eta 2013an beheraldia izan dute, 2014an zertxobait gora egiteko. Osagai nagusiei dagokienez:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** Ez da bariazio esanguratsurik izan diru-sarrera mota ezberdinetan, nahiz 2013an eta 2014an tarifek hurrenez hurren % 3,5 eta % 2 egin zuten gora.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Osagai nagusia Udalkutxa da eta ez zuen aldaketarik jasan. 2013ko beheraldi handia San Roque Egotetxea Fundazioari egindako foru transferentziek eragin dute, izan ere, aurrekontuan erregistratzen ziren eta urte horretatik aurrera aurrekontuz kanpo kontabilizatzeko erabakia hartu zen.



Funtzionamendu gastuak: Hirurtekoan % 17 egin dute behera, 2013an eta diru-laguntzen kapituluan biltzen dena. Bariazio nagusiak honako hauek izan dira:

- **Langile gastuak:** Egonkor eutsi diote soldata izoztu izanaren ondorioz eta igoera txiki bat izan da 2013an, 2012ko aparteko soldata puntualki kendu izanaren eraginez.
- **Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak:** Osotasunean ez du aldaketarik izan, nahiz behera egin duten kostu energetiko eta beste hornigai batzuek, gastu anitzek gora egitearekin batera.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** San Roque Egotetxea Fundazioari ematen zaizkion diru-laguntzen kontularitzako tratamenduak izan duen aldaketak argitzen du 2013ko murrizketa izugarria, nahiz, gainera, diru-laguntzen beste kontu-sail batzuk ere murriztu diren.

Aurrezki gordina eta garbia: Bi aldagai hauek hobetu egin dira, gastuen beheraldia diru-sarrerena baino handiagoa izan baita eta horren ondorioz, aurrezki gordinak 233.409 euro egin du gora, 2014an sarrera arrunten % 23 eginez. Aurrezki garbia are gehiago hobetu da, interes eta amortizazioagatik finantza zamak behera egin duelako; honela, bada, 2014an sarrera arrunten % 15 egin du.

Kapital eragiketen emaitza: 2014ko inbertsioen igoera azpimarratu behar da, Barroeta zubiko lanak abiarazi baitira; BFAk 550.000 euroren diru-laguntza eman du horretarako, 2011n ingresatu zituenak.

Eragiketa ez finantzarioen emaitza: Emaitza positiboak eman ditu, hirurtekoan egonkor eutsi zaiena.

Diruzaintza geldikina: 2013an eta 2014an sortutako aurrezki garbiak kapitalezko eragiketen defizita gainditu zuen eta ondorioz Diruzaintza Geldikinak gora egin zuen, aztergai den aldiaren amaieran diru-sarrera arrunten % 40 egiten zuena.

Zorpetzea: Zorpetzeak, 1,5 milioi euro, eta horrek sortutako finantza zamak 2014an Udalaren sarrera arrunten % 30 eta % 8 egin zuten. Dagoen mailegu bakarria hiruhileko kuota jarraituetan amortizatuko da kitatzeko gelditzen diren 7 urteetan zehar.

Ondorioa: Udalaren sarrera eta gastu arrunten egiturak ez du bariazio handirik izan aztertutako aldian eta 2014an aurrezki garbiak diru-sarrera arrunten % 15 egin du; horrek, beste erakunde batzuen diru-laguntzekin batera eta geldikina unean-unean baliatuta, egungo inbertsio mailak finantzatzeko bide ematen duen aurrezki maila izatea eragin du.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Aurrekontuaren egonkortasuna: 5/2013 Foru Arauan ezarritakoari jarraiki, Udalaren artekaritzak txostena egin zuen aurrekontuaren egonkortasun printzipioa, zor publikoa eta gastuaren araua betetzen zela adieraziaz. 2014ko Likidazioari buruzko txostenak ondorioztatu du:

- aurrekontu egonkortasunaren helburua bete da, eragiketa ez finantzarioen superabita SEC terminoetan 799.213 milioi eurorena izan baita.
- zor publikoaren helburua bete da, diru-sarrera arrunten % 30 egin baitu, muga modura ezarritako % 60 baino txikiagoa. % 35 baino txikiagoa den aldetik, Udalak ez du diruzaintza erabilgarria zorra murrizteko baliatu.
- gastuaren araua bete da, 2014 eta 2013ko likidazioen artean zenbagarria den gastuak % 5,6 egin baitu behera, aurreikusitako muga gastuak % 1,5 gehitzea zenean.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

2014-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE.	KOBRA.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	
1.- Zerga zuzenak	A.3	836	-	836	995	966	29	119
2.- Zeharkako zergak	A.3	20	-	20	124	108	16	620
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	419	-	419	573	535	38	137
4.- Transferentzia arruntak	A.4	3.110	(40)	3.070	3.071	3.039	32	100
5.- Ondare sarrerak	-	10	-	10	14	14	-	140
6.- Inbertsio errealen besterentzea	-	-	-	-	89	89	-	-
7.- Kapitalezko transferentziak	A.4	-	35	35	75	58	17	214
8.- Finantza aktiboak	-	13	1.423	1.436	3	2	1	-
SARRERAK GUZTIRA		4.408	1.418	5.826	4.944	4.811	133	108

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	
1.- Langileria-gastuak	A.5	1.386	-	1.386	1.359	1.330	29	98
2.- Ondasun arruntan erosk. eta zerb.....	A.6	1.727	80	1.807	1.595	1.413	182	88
3.- Finantza gastuak	A.9	70	(2)	68	66	66	-	97
4.- Transferentzia arruntak	A.8	810	(42)	768	747	744	3	97
6.- Inber. errealak	A.7	139	1.331	1.470	611	540	71	42
7- Kapitalezko transferentziak	A.8	-	3	3	3	3	-	100
8.- Finantza aktiboak	-	13	-	13	3	3	-	23
9.- Finantza pasiboan bariazioa	A.9	219	92	311	303	303	-	97
GASTUAK GUZTIRA		4.364	1.462	5.826	4.687	4.402	285	80
SARRERAK - GASTUAK		44	(44)	-	257	409	(152)	

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	KOBRA./		AZKEN
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	
Zordunak	A.10	165	(1)	(79)	85
Hartzekodunak	-	297	-	(295)	2
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA		(132)	(1)	216	83



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....	4.944
Aitortutako obligazioak.....	4.687
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETA AURREKONTUZKOEN EMAITZA	257
AURREKO EKITALDIETAKO KITATUTAKO AURREK. ERAGIKETEN EMAITZA	(1)
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	256
Finantziario desbideratzeak.....	195
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	505
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	956

DIRUZAINZA GELDIKINA

Diruzaintza geldikina 1/1/2014an.....	1.675
Ekitaldiaren aurrekontu emaitza.....	256
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldatetak.....	(8)
DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 2014.12.31-N	1.923
Diruzaintza..... A.9	2.198
Aurrekontuko zordunak..... A.10	218
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....	11
Aurrekontuzko hartzekodunak.....	(287)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak.....	(150)
Kaudimen-gabez. zuzkidura.....	(65)
Aplikatzeko dauden sarrerak.....(2)	
DIRUZAINZA GELDIKINA 2014.12.31-N	1.923
Finantzaketaren desbideratze positiboak.....	(392)
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA	1.531
ZORPETZEA 2014.12.31n	1.450



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2014 ETA 2013-KO ABENDUAREN 31-N Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA	2014	2013	PASIBOA	ERANSKINA	2014	2013
IBILGETUA	A.7	46.480	45.870	FUNTS PROPIOAK		46.953	45.792
Erabilera orokorrera emana.....		24.962	24.501	Ondarea		24.395	24.395
Ibilgetu ezmateriala.....		1.452	1.430	Ekitaldi itxien emaitza		21.397	20.617
Ibilgetu materiala.....		20.066	19.939	Ekitaldiaren emaitza.....		1.161	780
				HARTZEKODUNAK EPE LUZERA.	A.9	1.243	1.534
ZORDUNAK		154	109	HARTZEKOD. EPE LABURRERA		646	783
Indarreko ekitaldiaren aurrek.	A.10	133	-	Indarreko ekitaldiaren aurrek.		285	-
Ekitaldi itxien aurrek.....	A.10	85	165	Ekitaldi itxien aurrek.....		2	297
Askotariko zordunak.....		1	1	Bestel. hartzekodun ez aurrek.....		17	117
Entitate publikoak.....		-	-	Erakunde Publiko hartzekodunak...		52	70
Kaudimengabez. zuzkid.	A.10	(65)	(57)	Beste zor batzuk (maileguak)	A.9	207	219
				Jasot. bermeak eta gordailuak		81	77
FINANTZA-KONTUAK		2.208	2.130	Aplikatzeko dauden sarrerak.....		2	3
Finantza inbertsioak		10	-				
Diruzaintza	A.9	2.198	2.130				
AKTIBOA GUZTIRA		48.842	48.109	PASIBOA GUZTIRA		48.842	48.109

2014 eta 2013ko ekitaldietako GALERA-IRABAZIEN KONTUA Euroak milakotan

GASTUAK		2014	2013	SARRERAK		2014	2013
Langileria-gastuak.....	A.5	1.359	1.388	Negozio zifraren zenb.		498	476
Ibilgetua amortizatzeko zuzk.....		-	-	Zerga zuzenak	A.3	995	947
Horniduren aldaketak		8	10	Zeharkako zergak	A.3	124	92
Kanpoko zerbitzuak	A.6	1.595	1.599	Jasotako transf. eta dirul.	A.4	3.146	2.927
Emand. Transf. eta dirulag.		750	793	Bestelako sarrerak.....		173	202
USTIAPENAREN MOZKINA		1.224	854				
Finantza gastuak.....	A.9	66	81	Balore negoziag. sarrerak.....		5	11
				EMAITZA FINANTZARIO NEG...	61	70	
				AURREKO EKITALDIETAKO GALERAK		1	4
				APARTEKO GALERAK.....		1	-
EKITALDIAREN MOZKINA		1.161	780				



ALEGAZIOAK

ALEGAZIOA KONTRATAZIO ALORREKO LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO II.1 ATALARI

- Udal eraikinak eta herriko eskolak garbitzeko zerbitzua: epaitegiak dio oker egin dela, zerbitzua ez delako prozedura irekiz kontratatu eta, ondorioz, publizitate- eta lehia-printzipioak urratu direlako.

Erantzuna:

Urte askoan udaleko beharginek eurek egin izan zuten udal eraikinen eta herriko eskolen garbiketa. Horiek erretiroa hartzeko adinera heldu ahala, ordea, behargin berriak hartu behar ziren, eta irtenbide errazenera jo zuten Udalak. Hau da, zerbitzua enpresa espezializatu baten bidez ematera.

Denborarekin, zerbitzuak gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen eta, bitartean, Udala beharginik barik gelditu zen udal eta herriko eraikinak garbitzeko. Udala jabetzen zen egoera hori lehenbailehen erregularizatu eta zerbitzua prozedura ireki bidez eta publizitatearekin kontratatu beharraz.

2011an Udalbatza aldatu zen eta beste alderdi politiko batek hartu zuen udal gobernua eta horrek, bere hauteskunde programa betetze aldera, zerbitzua berriro zuzenean emateko posibilitatea lantzen hasi zen, zerbitzu publikoak azpikontratazio bidez eman beharrean.

Irtenbide batoren eta bestearen kostuak aztertu eta aurrera egin erabaki beharra zegoen. Baina bien bitartean egoera erregularizatu beharra zegoen kontratu bidez eta, horregatik, garbiketa kontratu bi negoziatu ziren zerbitzua ematen zuen enpresarekin. Bata udalaren menpeko eraikinak garbitzeko eta bestea herriko eskolak garbitzeko.

Gaia eztabaidatzeko denbora hartu eta zerbitzua azpikontratatu ala ez behin betiko erabaki bitartean, ez zen bidezkoa ez eraginkorra ez logikoa ikusten kanpoko lizitazio batera jotzea. Hala ere, zailtasunak zailtasun eta urte biz luzatu ziren eztabaidak eztabaida, kontratu negoziatu bi horien amaiera etorri zen, legealdia amaitzeko urte erdi eskas falta zela.

Horregatik, berriro ere eta Udala konbentziturata ahaztu egin behar zela zerbitzua zuzenean emateaz, artean indarrean zen kontratua beste urte betez luzatzea erabaki zen, bien bitartean denbora izateko legeak agindutako baldintza eta eskakizun guztiak martxan jartzeko.

Honi buruz esan behar da, udaleko idazkari eta kontu-hartzaileak txosten bat idatzi zuela 2012ko abenduan, hitzez hitz honakoa ondorioztatzen: "... Conclusión: A juicio de la que suscribe la contratación del servicio de limpieza de los edificios municipales debiera realizarse en un solo lote y mediante procedimiento abierto, por lo tanto mi informe con respecto al procedimiento a seguir en este caso es negativo puesto que, en primer lugar, no se ve razón para subdividir la licitación en dos lotes y, en segundo lugar y, aunque fuera justificado el recurrir a dos lotes no lo sería la forma de negociar puesto que no se negocia con al menos tres empresas, únicamente se ha negociado con una." Eta harrezkero, 2014ko



urtearen amaierako fiskalizazio txostenean, hain zuzen ere, idazkari eta kontu-hartzaileak berriro heltzen dio gaiari eta dio garbiketa zerbitzuaren kontratazioaren egoera ez dela zuzena.

Hori horrela, Udalak argi eta garbi utzi nahi du udal eraikinen garbiketa zerbitzua berriro lizitatu dela 2015ean, prozedura irekiz lizitatu ere eta, horrenbestez, publizitate- eta lehia-printzipioak bete dituela. Halaber, egin beharreko beharrak zehaztu dira, kontratuaren arduraduna izendatu da eta abala kontratuaren iraunaldi osoa bermatzeko abala esijitu zaio enpresa adjudikaziodunari. Lizitazioko prozedura amaitu da eta kontratua hartu duen enpresa hasi da zerbitzua ematen, 2016ko urtearen hasieratik eta urte birako.

Adierazitako horren guztiaren justifikaziotzat ikusi zerbitzua lizitatu eta adjudikatzearen inguruko informazioa eta agiriak, udal web atariko kontratatzailearen profiletik hartu daitezkeenak: http://www.markina-xemein.com/eu-ES/Udala/Kontratatzaile-profila/Orrialdeak/adjudicadas_udalErakinetaZentroenGarbiketaKontratua.aspx

- Epaitegiak dio beste kontratazio batzuk ere akatsak dituztela. Hala nola: argindarraren hornidura kontratazioa, dirubilketa zerbitzuarena, kulturgunearen zuzeneko kontratazioa eta hirigintza aholkularitzaren zerbitzuarena. Lehenengo bietan publizitatearen printzipioa urratu omen dugu eta gainerako bietan, gainera, baita lehiarena ere.

Erantzuna:

- Hornidura elektrikoa: Udalak aholkularitza baten laguntza du hornidura elektrikorako eta, egia bada ere lizitazioa ez dela boletinean argitaratu, gonbidapena bai bidali zaie edozenbat hornitzaile elektrikeri eskaintzak aurkeztu ditzaten. Ikusi hornidura elektrikoaren aholkulari GENER enpresak bidalitako dokumentazioa, honako hauek osatzen dutena:
 - 1) Elektrizitate eskaintzak alderatzen eginiko taula, 2014ko urrikoa.
 - 2) GENERrek hainbat hornitzaile bidalitako emailak, euren eskaintzak aurkezteko gonbidatzen.
 - 3) Markina-Xemeingo Udalaren merkatu libreko kontratuen zerrenda.
- Dirubilletako lankidetza zerbitzua: Dirubilletako lankidetza zerbitzua kontratatu zenean, legez egokia zen sistema aukeratu zen, hau da, negoziatua eta publizitaterik gabea. Hala ere, interesgarria da azpimarratzea Bizkaiko Foru Aldundia bere lankidetza zerbitzuez baliatzeko gonbitea egiten ari dela udalei, eta Udala aztertzen ari dela foru zerbitzuez baliatzeko aukera hori, indarrean den kontratua aurten amaitzen denerako.
- Kulturgunearen kudeaketa: Ez gatoz bat Epaitegiarekin, honek kontratatu beharreko zerbitzu baten kudeaketa dela dionean. Udalaren iritziz, Uhagon herriko kultur elkarte bat da, kultur ekintzak egin eta eskaintzen dituena eta udalarekin lankidetza hitzarmen bat sinatua duena. Beraz, ez dugu ikusten kanpo-kontrataziora jo beharra dagoenik, herriko elkarte batekin lankidetza hitzarmen bat sinatuta nahikoa izanda.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Hirigintza aholkularitza: Azken honi buruz esan behar dugu badakigula hala dela. Hau da, zerbitzua pertsona batek ematen diharduela ia hogeita hamar urtean. Alabaina, pertsona horri erretiroa hartzeko gutxi falta zaiolarik, Udalak lanpostu hori sortzeko eta betetzeko asmoa du legezko xedapenak jarraituta, beti ere estatu mailako arauak horretarako biderik emanez gero.

ALEGAZIOA URTEKO KONTUEI BURUZKO II.2 ATALARI.

Epaitegiak dio Udalak ez dituela zehazten bere balantzeko ibilgetua osatzen duten elementuak eta ez duela erregistratzen ibilgetuaren amortizazioko gastuak.

Erantzuna: Udalak aintzat hartu du adierazitakoa eta Bizkaiko Foru Aldundiak udalenzako duen aholkularitza zerbitzuari laguntza eskatuko dio, Epaitegiak gogorarazitako betekizunean izandako akatsa zuzentze aldera.

ALEGAZIOA BARNE KONTROL SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO III ATALARI.

III.1 ATALA: AURREKONTUA, KONTABILITATEA ETA DIRU-SARRERAK.

Epaitegiak azpimarratu du Udalak ez dizkiola zabor eta estolderia tasen errolda fiskalak entregatzen Ur Partzuergoari.

Erantzuna: Kontuan hartuko dugu iritzia eta, gainera, estolderiako diru-sarrerak eta zabor tasenak ere dagokion ekitaldian onartuko dira.

Epaitegiak adierazi du orokortu egiten dela faseen (ADO) metatzea, aurrekontua betearazteko udal arauak bakarrik kasu batzuetan onartzen duenean holan egitea.

Erantzuna: kontuan hartuko dugu iritzia.

Epaitegiak ikusi du kontu orokorrak ez duela obra jakin bat burutzeko konpromisoa jaso, Ur Partzuergoan sartzean hitzartutako obra bat hain justu, eta ezta Barroetako zubiko lanak ere.

Erantzuna: Kontu Orokorrari kontu-hartzailearen txosten bat erantsiko zaio, Udalak hartutako gastu konpromiso guztiak eta, halaber, erabiltzeko fasean eta burutzeko dauden saldo (AD) denak.



Epaitegiak azpimarratu du gehiegizko diru kopurua sartu zela bestelako gastuen atalean, eta atal hori, izatez, diru hondarrak sartzeko dela.

Erantzuna: Kontuan hartuko dugu iritzia. Izan ere, 2016ko aurrekontuan, bestelako gastuen kontzeptuan, beste atal batzuetan sartu ezin diren gastuak baino ez dira sartu.

Epaitegiak adierazi du kiroldegiak eragindako diru-sarrerak udal diru-sarrera lez erregistratu beharko liratekeela, eta gastu lez ere, zerbitzuaren ordainketaren parte diren heinean.

Erantzuna: Kontuan hartuko dugu iritzia. Kiroldegiko diru-sarrerak udal sarrera lez sartuko ditugu sarreren aurrekontuko 31010 partidan “Udal kirol instalazioak” eta gastu lez, 3420 22799 partidan “Kiroldegia. Kanpoko beste lan batzuk”, emandako zerbitzuen ordainketa direlako, kontratuan xedatutako moduan.

ALEGAZIOA PERTSONALARI BURUZKO III.2 ATALARI.

- Epaitegiak dio argitaratu egin behar zela eta ez zela hala egin osoko bilkurak 2011n hartutako erabaki bat, alkatearen eta zinegotzi baten dedikazioa eta lansariak onartzen hartutakoarena. Horren kontrako ezer gutxi esan genezake. Adierazi, hori bai, 2015ean Udaltzaria berria eratu denean alkatearen lansariak eman direla argitara.

Arrazoitu dugunaren justifikaziotzat, ikusi 2015eko uztailaren 13ko BAO (132 zenbakia) argitaratutako iragarkia, 2015eko ekainaren 25eko ezohiko osoko bilkurak Alkateordeak izendatu eta Tokiko Gobernu-Batzarra eratu eta osatzea eta alkate-zinegotzientzako eta alderdi politikoentzako lansariak onartzea erabaki izanari buruzkoa, eta, halaber, erabaki horrek jasotzen egindako akta, udal web orrian ikusi daitezkeena: [http://www.markina-xemein.com/eu-ES/Udala/Osoko-Bilkuren-Aktak/2015eko%20aktak/2015-06-25%20Udalaren%20Osoko%20Bilkura%20berezia%20\(Pdf%20183KB\).pdf](http://www.markina-xemein.com/eu-ES/Udala/Osoko-Bilkuren-Aktak/2015eko%20aktak/2015-06-25%20Udalaren%20Osoko%20Bilkura%20berezia%20(Pdf%20183KB).pdf)

- Epaitegiak dio 2012ko abenduan ez zela argitaratu udal langileen lan baldintzak onartzen hartutako erabakia. Honi eman diezaiokegun erantzun bakarra, hauxe: akordioa 2015era artekoa zen eta, horrenbestez, une honetan ez du zentzurik indargabe gelditu den akordio bat argitaratzeak. Beste alde batetik, sindikatuak eta Eudel hitzarmen berria negoziatzen ari dira. Udalak bere langileen lan baldintzen akordioa onartzen duenean, erabakia argitara emango du.
- Epaitegiak azpimarratu du fiskalizatutako urtean ez zirela argitaratu lanpostu bakoitzaren berriazko osagarriak. Kontuan hartuko duguna aurtengo ekitaldiko aurrekontuarekin batera lanpostuen zerrenda argitaratzerakoan.
- Epaitegiak dio hiru lanpostu amortizatu direla, horren justifikazioko txostena egin barik. Hiru administrari laguntzaile lanpostu dira. Hirurak administrari lanpostu bihurtzeko barne promozio prozesua hasita dago eta amaitzea falta da. Fiskalizatutako urtea baino duela urte batzuk egin zen lanpostuen balorazioa bera da justifikazio txostena. Balorazioak barne promozioa proposatzen zuen, oraindik amaitu ez dena hainbat



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

arrazoirengatik. Izan ere, prozesua hori baino bizkorragoa izan beharko zukeen, hiru administrari laguntzaile lanpostuak aspaldi amortizatuta egongo zirelako.

- Epaitegiak azpimarratu du lau lanposturen kasuan lanpostu mailako osagarria ez zetorrela bat plantillakoarekin. Bat da ibilgailuen arduradunaren lanpostua. Honen lansaria aldatu egin zen Bizkaiko Lan Ikuskatzailearen laudoa onartu izanaren ondorioz. Eta beste hirurak, hiru udaltzainenak dira, 2009an, arloko arduradunak hala eskatuta, C1 taldera pasatu zirenean C1 taldeko gainerako langileekin berdindu zirenak. Akats bat da, eragin ekonomikorik ez duena. Izan ere, lanpostu mailako osagarrian igo zena, berariazko osagarriari kendu zitzaion. Edozein kasutan, kontuan hartu eta zuzendu egingo dugu lanpostuen zerrenda hurrengo argitaratzen dugunean.
- Epaitegiak dio indarrean dirautela 2011an eta 2012an egindako bitarteko funtzionario izendapen bik. Honi buruz esan, lanpostu bi horiek ez direla existitzen lanpostuen zerrendan eta sortu eta bete egin beharko zirela, estatu mailako arauak horretarako biderik emanez gero.
- Epaitegiak nabarmendu du 2011an hasitako legealdian talde politikoak ez zirela legeak agintzen duen moduan eratu. Balio beza justifikatziotzat Udalaren 2015eko ekainaren 25eko osoko bilkura bereziaren 7/2015 aktako 8. puntua, talde politikoaren antolaketari buruzkoa, udal talde politikoak sortu eta antolatze erabakia jasotzen duena: [http://www.markina-xemein.com/eu-ES/Udala/Osoko-Bilkuren-Aktak/2015eko%20aktak/2015-06-25%20Udalaren%20Osoko%20Bilkura%20berezia%20\(Pdf%20183KB\).pdf](http://www.markina-xemein.com/eu-ES/Udala/Osoko-Bilkuren-Aktak/2015eko%20aktak/2015-06-25%20Udalaren%20Osoko%20Bilkura%20berezia%20(Pdf%20183KB).pdf) bai eta udal talde politiko horiei bidalitako gutuna, udalak emandako diru-laguntza zertan gastatzen duten kontu eman behar dutela eta, edozein kasutan, udal politika egiteko erabili behar dutela ohartarazten.

ALEGAZIOA KONTRATAZIOARI BURUZKO III.3 ATALARI.

- Udal eraikinen garbiketa zerbitzua. Epaitegiaren esanetan, fiskalizatutako urtean indarrean zen kontratua egiteko erabili zen pleguan garbitu beharreko instalazioen zerrenda eta beharreko orduena ageri zen kontratatutako prestaziotzat, eta ez zen ezelako bermerik eskatu. Horri buruz esan, une honetan indarrean dagoen kontratuan argi eta garbi jasota daudela eman beharrek prestazioak, eta adjudikaziodunak ekarritako bermeak kontratazio aldi osoa hartzen duela barne.
- Kiroldegiaren kudeaketa. Epaitegiak honako akatsak azpimarratu ditu:
- Ez dago azterketa ekonomiko-administratiborik: Kontuan hartu behar da aurreko kontratua hartu zela oinarritzat.
